

**2020ko urtarrilaren 29eko  
EZOHIKO OSOKO BILKURAREN  
AKTA**

**DEIALDIA: LEHENA  
HASIERA ORDUA: 20:45  
BUKAERA ORDUA: 21:09**

**Bertaratutakoak:**

- 1.- Leixuri Arrizabalaga Arruza.
- 2.- Onintze Amezaga Bilbao.
- 3.- Aitor Arteta Sertutxa.
- 4.- Nekane Garmendia Sertutxa.
- 5.- Jon Ander Bilbao Latxaga
- 6.- Alberto Hernandez Dominguez
- 7.- Iñaki Mendizabal Ibarrondo
- 8.-Mikel Larrazabal Zurbanobeaskoetxea.

**Ez da bertaratu:**

Amaia Otazua Sanchez

**Idazkaria:** Iker Jaka Arratibel.

**1.- 2020ko udal aurrekontua, inbertsio eta dirulaguntzen eranskiña, langileen zerrenda eta 2020ko Aurrekontuaren Exekuzio Udal Araudia.**

Leixurik dio honen inguruan pare bat hilabete daramatzagula aurrekontuari buelta emonaz. Hasierako zirriborroa udal taldeei eman zaie eta epea bat eman zaie ekarpenak egiteko eta azkenean bukatu den dokumentua da orain aurkeztu dana. Astelehenean ezohiko informazio batzorde bat egon zan hura diktaminatzeko eta gaurko ezohiko pleno honetara ekartzeko.

**Diktaminatu zen eta hau da emaitza;**

Bildu (2) Abstentzioa  
EAJ (5) bai  
GTI (1)

**Diktamena:**  
Aldekoa”

Gero bozkatzen da eta hau da emaitza:

**Kontrako botoak**

1(Bildu)

## **Abstentzioak**

2(GTI)

## **Aldeko botoak**

5( EAJ-PNV)

Beraz bertaratuek EAJ-ren aldeko botoak, GTI-ren 2 abstentzioak eta Bilduko zinegotzi bakarraren aurkeko botoarekin hurrengo adosten dute:

**Lehenengoa:** 2020ko udal aurrekontua, inbertsio eta dirulaguntzen eranskiña, langileen zerrrenda eta 2020ko Aurrekontuaren Exekuzio Udal Araudia hasierakoz onartzea.

**Bigarrenkoa:** Jendaurrean ipintzea iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarkia ipiniaz iragarkia argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik kontaktzen hasita 15 lanegunez egon dadin jendeak ondo iristen dion erreklamazioak egin ditzan.

Albertok Bilduren ezezkoa justifikatzeko, besteak beste, hau dio:

“Guk ezetza esaten diogu ez gaudelako konforme zeren eta partehartze prozesu hori ez da hartu behar zen seriotasunarekin. Buzoneatu zen papera herritarren proposamenak jasotzeko eta gero web orrian zegoena ez dira bat etorri. Web gunean 2017koa erabili da nahiz eta hemen esanda egon. Honetaz aparte, 10 proposamen bakarrik jaso izan diren partehartze prozesu bati ezin zaio partehartze prozesua deitu. Aurkezpen bilera ez da egin”

“Partidetan hasiera batean aurkeztu zitzaigun zirriborroa aldatu egin da eta prestutasuna adierazi zenuten aldaketa hori egiteko baina guk batekin ez dugu bat egiten. Hemendik aldizkariak 3000 euroko dirulaguntza jasotzen beste aldizkari edo egunkarik egon da euskara hutsean idazten dutenak eta iñolako subentziorik ez dutenak ba hor nik usted ut agravio bat dagoela”

“Gero badaude beste gauza batzuk batzordeetan erantzunak jaso ditugunak baina ez gaude ados erantzunekin. Gastu elektrikoa igoera aurrikusten da baina kasualidadez gasoleoan ez. Argindarra gutxiago gastatzeko empresa bat egon da eta emaitzak antza ustelak dira argiaren igoera aurrikusten bada.”

“Bukatzeko forma aldetik ingresotan 13. orrialdean astelehenean eginiko batzordean zalantza bat bota genuen partida baten inguruan eta nik uste nuen Eusko Jaurlaritzaz hari giñela eta berriro be diputazioa azaltzen da.”

Leixurik Alberto erantzunez hau dio, besteak beste:

“Partehartzearen inguruan guk onartzen dugu akatsa izan genuela. Buzoneatutako idazkia eta web gunean ataratakoa ez zuten bat egiten baina zuzenduko genuela esan genuen eta arazo teknikoak egon dira zuzenketa hori egiteko. Hala ere, akats hori antzeman zuten pertsonen eman zitzaien aukera proposamena egiteko epea luzatuz.”

“10 idazki jaso ditugu aurten. Hori izan da bataz bestekoa azken 4 urteetan. Partehartze prozesua oso xumea izan da. Ikusten badugu ez dela egokia bestelako prozesu bat pentsatuko dugu. Urte bete dekogu hori aztertze eta hobetzeko. Egia da baita ere urtean zehar elkarte eta herritarrek ere eskaerak egiten dituztela euren auzoetako gauzak konpontzeko”

“Dokumentuaren inguruan, energiarena..., hitzegin dugu baina egia da asko igo dala kontsumoa eta horri buelta bat eman behar zaio.”

“Hemendik aldizkariaren kasua partida hori beti dator Uribe-Butroe Mankomunitatearen bitartez. Hitzarmen bat dago Hemendik-ekin komunikazio atalean eta horretara destinatutako partida bat da. Horretaz Gatitako Udalak badaramatza urte pilo bat euskal hedabideekin bakarrik lan egiten duela adibidez Hamaika Telebistarekin. Hemendik guk aparteko bat ikusten dugu mankomunidadearekin dugun konpromezu bat bezala”

Mikelk GTIren izenean hau dio:

“Nik ez dekot ezer kontran esateko. Guk egin doguzan aportazio txikiak jaso egin dira eta beraz sentido horretan ondo. Gero asuntoa da aurrekontuaren exekuzioa nola bideratzen dan eta guk ez dugu zuriz txekerik emango. Baina zuk bideratu ein dezun absteniduko gara eta listo.”